

LLOYD'S-en B01C-1714001049/19 Erantzukizun Zibil Profesionalaren polizara atxikitzeko orria.

## AITORPENA

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Elkargokide zk.: \_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

Jaiotza-data: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_

Posta-kodea: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

Harremanetarako telefonoa: \_\_\_\_\_

### JARDUERA

**Gizarte-hezitzaile** baten berezko jarduerak. Aseguratua jarduera horiek egiteko legez gaituta egongo da eta lanbide horretan uneoro eskatzen diren baldintzak beteko ditu. Aplikatzekoak zaizkion xedapenek esleitutako lanbide-gaitasunen esparruan egindako bitartekotza- eta/edo arbitraje-jarduerak haien artean egongo dira.

### DEFENTSA JURIDIKOA:

Defentsa juridikoa erreklamazioen aurrean, funsgabeak badira ere. Fidantza judizialak.

### DENBORA-MUGA:

Aseguruaren estaldura Aseguratuari edo, hala badagokio, Aseguratzailari zuzeneko ekintza gauzatuz, aseguruaren indarraldian lehen aldiz, egiten zaizkion erreklamazioak babestera mugatzen da.

### EREMU GEOGRAFIKOA:

➤ Europar Batasuna

### ESTALITAKO KAPITALAK:

#### Aseguratutako zenbatekoa

300.000 €-ko estaldura Aseguratuko eta urteko kuotako

Izena: \_\_\_\_\_

Sinadura: \_\_\_\_\_

## HARTZAILEARENTZAKO ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

### Artekaritza-enpresaren datuak

SERPRECO CORREDURIA DE SEGUROS, SA (aurrerantzean, "SERPRECO") Mutualitat de Previsió Social del Col·legi Oficial d'Enginyers Industrials de Catalunya a Prima Fixa (La Mútua dels Enginyers) mutualitateak partaidetza gehiengoduna du "Serpreco"-ren kapital sozilean.

### Aholkularitza

"Serpreco"-k zure beharretara egokitzen den aseguru-kontratuaren inguruko aholkularitza profesional objektiboa emango dizu. Arriskuari buruz emango dizkiguzun informazioak eta datuak eta azkenean interesatzen zaizkizun estaldurak oinarri hartuz egingo da zure polizen bitartekaritza. Gogorarazten dizugu oso garrantzitsua dela arriskuaren datuak, estaldurak eta polizaren baldintza partikularretan jasotako aitortpenak berrikustea eta, adostutako baldintzetan edo/eta zure eskaeran edozein akats edo desadostasun antzematen baduzu, berehala jakinaraztea. Poliza eman zaizun unetik 30 egun izango dituzu edozein gauza zuzentzeko eskatzeko. Epe hori amaituta, polizaren edukiak aginduko du alderdi horietan guztietan.

Bezeroak enkargua ezeztatzen ez duen bitartean, artekariari baimena emango dio ematen dizkion komunikazioak bere izenean helarazteko, poliza bat kontratatu, aldatu edo deuseztatzeari buruzkoak barne; azken kasu horietan, bezeroak alde aurretik eta berariaz jakinarazi beharko dio artekariari.

### Bezeroaren arreta eta defentsa

Jakinarazten dizugu, bitartekari gisa egin dugun esku-hartzearen inguruko edozein kexa edo erreklamazio aurkeztu nahi izanez gero, La Mutua de los Ingenieros-en Mutualisten Arreta Zerbitzura jo dezakezula ([sam@mutua-ingenieros.com](mailto:sam@mutua-ingenieros.com)), hasiera batean (bi hilabete izango ditu ebazteko), eta, horren ondoren, Mutualistaren Defendatzailearengana ([defensor@mutua-ingenieros.com](mailto:defensor@mutua-ingenieros.com)). Kexak eta erreklamazioak Mutualistaren Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira derrigorrez Mutualistaren Defendatzaileari helarazi ahal aurretik. Bi organoen helbidea hau da: Via Laietana, 39, 2.º, 08003, Barcelona. Tel. 932 954 300, fax. 933 100 638. [mutua-ingenieros.com](http://mutua-ingenieros.com) webgunean horri buruzko informazio gehiago aurkituko duzu, bai eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduak ere.

### Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa

Badakigu zure pribatasuna garrantzitsua dela eta, horregatik, oso serio hartzen dugu zure datuen konfidentziasuna indarrean dagoen araudia betez bermatzeko lana. Irakurri arretaz informazio hau:

**Tratamenduaren arduraduna** SERPRECO CORREDURIA DE SEGUROS, S.A. ("Serpreco") da; IFK: A58852518.

**Tratamenduaren helburua** da ahalbidetzea produktuak tramitatu, kontratatu eta berritzea, kontratatutako zerbitzuak ematea eta balizko ekintza komertzialak egitea.

Datuak tratatzeko **legitimazioa** gure kontratuzko eta legezko betebeharrak betetzean, gure interes legitimoan eta interesatuaren adostasunean oinarritzen da.

Datuen **hartzaileak** taldeko enpresak eta kontratuzko eta legezko betebeharrak bete ahal izateko beharrezkoak diren beste hartzaile batzuk dira. Ez dago jasota datuak Europako Esparru Ekonomikotik (EEE) kanpo transferitzea, salbu eta EEEtik kanpo filialak dituzten aseguru-etxeak tarifikatu edo kontratatzen badira.

Datuak eskuratu, aldatu eta ezabatzeko **eskubidea** duzu, baina informazio gehigarrian zehatzago azaltzen diren beste eskubide batzuk ere.

**Informazio gehigarria** gure webgunean ([https://www.serpreco.com/es/rgpd/politica\\_de\\_privacidad](https://www.serpreco.com/es/rgpd/politica_de_privacidad)) kontsulta dezakezu edo paperezko kopia bat eska dezakezu edozein bulegotan.

Kontratutako produktu eta zerbitzuek zure osasunari buruzko informazioa behar badute, baimena ematen duzu datu horiek tratatzeko kontratatutako produktuaren kudeaketarako, eta ziurtatzen duzu emandako informazioa zehatza eta benetakoa dela. Datu horiek eman ezean, baliteke Serpreco eskaerari erantzun ahal ez izatea.

Gainera, kontratatzaile zaren aldetik, zure gain hartzen duzu izendatuko dituzun aseguru eta/edo onuradunei Serpreco haien datu pertsonalak kontratatutako produktuaren helburu hertsietarako tratatuko dituela jakinarazteko betebeharra, eta adierazten duzu onuradun horiek 16 urtetik gorakoak direla eta/edo, beharrezkoak badira, gurasoen edo tutoreen baimena duzula haien datuak tratatuak izateko.

Dena den, emandako datuak etorkizunean aldatuko balira, aldaketa horiek guri jakinarazteko konpromisoa hartzen duzu, datuen zehaztasuna mantentze aldera.

Eta aurreko baldintzekin ados dagoela adierazteko, produktu edo zerbitzuaren eskatzaileak sinatu du:

\_\_\_\_\_ (e)(a)n, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an.

Izena: \_\_\_\_\_

Sinadura: \_\_\_\_\_